




KONTSUMO ARDURATSUAREN GIDA



EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, MERKATARITZA,
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO

KONTSUMO ARDURATSUAREN GIDA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA
COMERCIO Y TURISMO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

VITORIA-GASTEIZ, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jauraritzako Liburutegi Nagusiaren Katalogoan aurki daiteke:

<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Argitaraldia:	1.a 2009 urtarrila
Ale-kopurua:	2.000 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jauraritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	www.euskadi.net
Testua, diseinua eta maketazioa:	Ortzadar, S.L
Imprimeka:	Gráficas Varona, S.A. c/ Newton, 22. Parcela 55. Pol. Ind. El Montalvo I - 37008 Salamanca
ISBN:	978-84-457-2863-5
Lege-gordailua.	Vi. 1-2009

Aurkezpena

Produkzio- eta kontsumo-moduei dagokionez diferentzia handiak dauden mundu batean bizi gara. Herrialde industrializatuak iraunkorrak ez diren produkzio- eta kontsumo-moduengatik bereizten diren bitartean, garapen-bidean dauden herrialdeetan, askotan, ez dituzte elikaduraren eta osasunaren oinarritzko beharrak betetzen.

Publizitateak bete beharreko premia berriak ditugula eta arrakasta izateko “azken modan egon” behar dugula sinetsarazi digu. “Erabili eta botatzearen kultura” batean bizi gara, eta bertan, kontsumoa handiagotzeko produktuen bizitza erabilgarria mugatzen da eta guztia segituan zaharkituta geratzen da.

Gaur egungo gizartean kontsumo arduragabeari eta publizitate-mezuei jarraitzeko arriskua dago; horiek gehiegizko zorpetzea ekar dezakete. Etxeko ekonomietan “gainzorpetze” hori saihesteko honako hau egin beharko dugu: gure aukeren gainetik bizitzen ez saiatu, gastuak eta diru-sarrerak kontrolatu, bazter daitezkeen premiarik gabeko gastuak identifikatu, eta jasotzen dugun publizitatearekin arduratsuak izan.

Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak gure kontsumo-ekintzen arduradunak gara, jasotzen ditugun produktuekin eta zerbitzuekin modu kritikoan jokatu behar dugu, gure eguneroko ekintzen ingurumen-eragina murriztu behar dugu, bidezko baldintzetan egin eta merkaturatu diren produktuen kontsumoa lagundu eta tokiko produktuen kontsumoa bultzatu behar dugu, tokiko ekonomia sustatzeko modu gisa eta iraunkortasunerako berme gisa.

Erakundeak, produkzio-enpresak, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak tresna ekonomikoen eta arau-tresnen erabilera eraginkorrean inplikatu behar gara, gizarte-ekitatea lortzeko eta gure ingurumena errespetatzeko eta babes-teko.

Hori guztia dela-eta, Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzatik egokitzen jo da Kontsumo Arduratsuen Gida hau argitaratzea. Gida horren bitartez, kontsumo etiko, iraunkor eta solidarioa bultzatu nahi da biztanleen artean eta momentu oro gure kontsumo-ekintzen eragin soziala, ekonomikoa eta ingurumenaren eragina kontuan hartuz gaiak landu nahi dira.

ANA AGIRRE ZURUTUZA

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua

Hitzaurrea

Kontsumo Arduratsuaren Gida honekin pertsonekin eta ingurune naturalarekin errespetuzko kontsumo-ohituren garapena erraztu nahi da, **hausnarketaren, informazioaren eta ekintzara jarraitzeko jarraibideen** bitartez.

Gida hau **helduei** bideratuta dago, hala ere, gure arreta familia-eremuan finkatzen dugu, familian bertan eskuratzen baitira bizitzan zehar mantenduko ditugun ohitura eta balio gehienak. Izan ere, segur aski familian bertan dute jatorria adingabeen ohitura kontsumista askok.

Familiak emandako heziketa erabakigarria da, nagusia ez esateagatik. Oso garrantzitsua da txikitatik kontsumo arduratsu eta kritikoa bultzatuko duen eta bizi-kalitatearekin eta garapen iraunkorreko ereduarekin lotuko den heziketa bat garatzea, eguneroko ekintzetan islatuta.

Gaur egungo **gaikako bloke** interesgarri batzuetan sakontzea planteatzen dugu, lehenik eta behin horren inguruan hausnartzea eta ondoren horren arabera jardutea ahalbidetuko digun informazio fidagarria emanez. Kontu horien erabileraren inguruan ohiko bizitzan aplikatzeko ideia erabilgarriak proposatzen ditugu.

1. PUBLIZITATEA, kontsumoaren gizarteen zerbitzura dagoen tresna.

Publizitatearen barruan informazioa eta kontentzitu nahi bereizten ikastea eta publizitate-baliabideei inguratzen dien guztia ezagutzea, modu horretan kontsumitzaileek eta erabiltzaileek hautaketa arduratsuagoak eta kritikoagoak egin ditzaten..

2. JOLASAK, JOSTAILUAK ETA BIDEOJOKOAK, aisialdiko kulturaren eta aisialdi kontsumistaren artean.

Hautaketa bat egiterako garaian kontuan hartu beharreko elementuak ezagutzea eta solidaritatearen, segurtasunaren eta ingurumenarekiko errespetuaren ikuspegitik jostailuen eta bideojokoaren erabilera arduratsua egitea.

3. ELIKADURA arduratsua. Elikatzeak ez du beheak eta goiak irenstea esan nahi.

Elikadura osasungarria eta kalitatezkoa garatzea erraztuko diguten alderdi horiek identifikatzea, baita irizpide sozialen eta ingurumen-irizpideen arabera elikagai-produktuen hautaketa arduratsua egitea ere.

4. KONTSUMO IRAUNKORRA, giza ekintzaren eta planetaren arteko oreka.

Bete beharreko jarraibideak ezagutzea, gure eguneroko ekintzak pertsonekin eta ingurune naturalarekin errespetuzko kontsumo-ohituretan bilaka daitezen.

5. TELEFONIA ETA INTERNET, komunikaziorako erraztasun berriak.

Beharrezko informazioa edukitzea hautaketa arduratsua eta teknologia berrien erabilera seguru eta iraunkorra egiten ikasteko.

PUBLIZITATEA, kontsumoaren gizartearen zerbitzura dagoen tresna

11

JOKOAK, JOSTAILUAK ETA BIDEOJOKOAK, aisialdiko kulturaren eta aisialdi kontsumistaren artean

25

KONTSUMO IRAUNKORRA, giza ekintzaren eta Planetaren arteko oreka

43

TELEFONIA ETA INTERNET, komunikaziorako erraztasun berriak

61

ELIKADURA ARDURATSUA.
Elikatzeak ez du beheak eta goiak irenstea esan nahi

79

